



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-06-05**

VII URTEA 1.720. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

DULCE PONTES ABESLARIA

«Espero ez ditugun uneak, bereziak eta desberdinak sortu nahi ditugu»

TOLOSA Artista portugaldarrak 'Momentos' bere azken proiektua aurkeztuko du Leidor aretoan, bihar gauean

KONTZERTUA Betiko abestiak izango dira entzungai, baina baita grabatu gabe dituen kantu berriak ere »



Dani Freixas arkitektoa eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, herenegun, To.Pic zentroan. E. EZEIZA

TXOTXONGILOEN ETXEA ERREALITATE BIHURTZEN ARI DA PIXKANAKA

TOLOSA Dani Freixas arkitektoa izan zen herenegun To.Pic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroaren lanen berri ematen » 4

Bedaiotarrak «gustura» ludoteka inauguratu ostean


BEDAIO Ludotekaren inaugurazioa «luxuzko gonbidatuekin» egin zuten Kultur Asteburuan » 5

**Baliarraingo
II. Frontenis
Txapelketa
bihar goizean
hasiko da »**

**Arbizuren aurka
jokatuko ditu
bihar Leitzak
multzoko
azken partidak »**

DISEINU GRAFIKO eta sormenean
oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zirkulak



ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es

INFORMAZIOA **943 310 873**

Herriz: Pasaieku 95 • 20008 Dorostua • Gipuzkoa • Faxa 943 310 876

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburua Rodolfo Ares jaunari gutun irekia

Lehenengo larunbatean Tolosan terorrismoaren biktimei eginiko omenaldi-ekitaldiaren aurrean, zenbait galdera egin nahi nizkizuke.

Bertako komunikabideetan salatu nuen bezala, lehen eta bigarren mailako biktimak egotetik aparte, badira lehen eta bigarren mailako herritarrak ere, nahiz eta legeak herritar orok eskubide berberak ditugula eta legearen aurrean denok berdinak garela esan.

Dirudienez, zuek nahi dituzuen guztiak omentzerik ditzakezue, eta gu, aldiz, atxilotuak eta zapalduak izaten gara. Hau diot, omenaldi honetan, zuek besteak beste Joxi Zabala eta Joxean Lasa omentu ahal izan zenutelako, eta ez dira zortzi hilabete oraindik, gu, senitarteko eta lagunak, atxilotuak eta jipoituak izan ginen, gure ahai-deen eraiketa eta torturak salatu nahi izateagatik besterik ez.

Legedia berdina dela guztiontzat kontutan hartzen badugu, zer esan nahi du honek, Tolosako alkatea den Jokin Bildarratz eta bere korporazio guztia, ekitaldi horren antolatzaile eta bultzatzaile bezala atxilotuak izango direla ere bai? Zure ere, ekitaldi horren parte hartzaile bezala atxilotua izango zara, Mai-xabel Lasa, Ahalduen Nagusia den Markel Olano eta beste zenbait politikari bezala? Jipoituak izango zarete ere bai?

Herri honetako jende askok nahi duena, eta nik nahi dudana ere bai, gatazkapolitikoak omenaldi horretan aipatutako baino biktima gehiago sortu dituela esatea da, eta beraien senitarteko eta lagunak hauek omentzeko zuek adinako eskubidea dugula, azkenaldi ho-

netan, ez bai diguzue uzten ere, gure hurbilekoei sikiera lore eskaintza xume bat egiterik. Zergatik horrelako ankerkeria? Akaso besteok ez dugure ahaideen galdera sufritzen?

Mikel Zabala, «Orain 8 hilabete atxilotua eta jipoitua, orain 14 urte Tolosako kanposantuan bezala».

Besteengan pixka bat pentsatzea ez dago gaizki

Kotxea aparkatzera joaten naizenean askotan gertatzen zaidan zerbaitek da hau: norbaitek ondo aparkatu ez duelako beste baten-tzako lekua ez dagoela. Hau ez duelako besteengan pentsatuz egin gertatzen da, hau da, azkarba-tean aparkatu du, gaizki, behar baino lekua gehiago hartuz, eta beste kotxe baten-tzat egon behar zuen lekua kendu du. Hori egiteagatik ez dute multarik jartzen, ados, bai-na mundu honetan guztia ez dago legeen menpe. Edo batzuk multa jartzea behar dute ondo egiteko?.

Idoia.

Meta uzteko proposamena

Duela gutxi herria apaindu dute meta, lasto fardo eta abarrek. Oso polita geratu da, eta nire gomendioa edo proposamena horrela mantentzea, ikusi baitut jendea asko gustatu zaiola, asko egon baitira, batez ere asteburuan argazkiak ateratzen. Badakit baserritarren usadioetara gerturatzeko jarri zituztela, baina nire ustez jendeak ez daki oso ondo zergatik dauden gauza guzti horiek hor. Pixka bat gehiago esplikatu beharko litzateke nire ustez.

Miren.

Amalur jardunaldiekin gustura

Pasa den astean Amazoniari buruzko jardunaldiak izan ziren. Bertan izan nintzen, eta egia esan oso ondo zeudela esan daiteke. Gustura egon nintzen, eta Amazoniaz pixka bat gehiago ikasteko aukera izan nuen.

Tolosarra.

Eguraldi onarekin utzi autoak etxean!

Urte osoan zehar ikusi ahal ditugu bizikletak gure kaleetan, baina eguraldi ona egiten duenean bereziki, eta azken egunetako giro onak animatuta edo inoiz baino jende gehiago ikusi dut bizikletarekin gora eta behera. Nik herrian bertan egiten dut lan eta lanera bizikletan joateko aukera dut ia egunero. Horregatik animatu nahi ditut egun hauetan bizikletan ikusi ditudan hoiak kotxea etxean utzi eta ahal duten guztietan bizikletan ibiltzera, eroso da, ez du kutsatzen, edozein tokitan aparka dezakezu... Utzi kotxeak etxean!!

Amalia.

Ikastolako urte amaierako jaialdia

Gure ikastolako jaialdiaren berri eman nahi dizuegu. Larunbatean [bihar] izango da eta honako hau da egitaraua:

- 14:00-16:00 Esku pilota eta frontenis partidua frontoi berrian, eta futbol partidua Txerminen.
- 16:00 Mus eta Xake txapelketak Txerminen.
- 16:00-16:30 Kros herrikoia Txerminen auzoan barrena.
- 16:30-18:00 Ikasleen ikuskizun mundiala.

- 17:00-19:00 Argazki eta eskularen erakusketa ikusgai 3. solairuan.

- 18:00 Pailazoak ganbaran.

- 18:15 Ikasle eta gurasoentzako jokoak: txinga, zaku eta goilara lasterketa eta lokotxa bilketa.

- 19:30 Tonbola eta disko festa.

Jesusen Bihotza ikastola.

Autokarabaren arazoa Maxi inguruan

Eroski ondoko bizilagun bat naiz. Beste behin irakurri nuen karabaren inguruan norbaitek idatzi zuela. Karabana hauek bizilagunenak izango balira ez litzaidake gaizki irudituko, behintzat ez litzaidake inportako gainontzekoen autoek ere lekua okupatzen dutelako.

Kuestioa da autokarabana hauen jabeak ez direla auzo honetakoak baina hemengoak balira bezala uzten dituztela asteak eta asteak mugitu gabe. Badirudi plaza fijoia dutela... Utz ditzatela euren auzoetan.

Iurreko bizilagun bat.

Umeek imajinazioa izatearen garrantzia

Aurrekoan hurrek ez dutela aspertzeko astirik zioen artikulu bat irakurri nuen, interesgarria. Umeek gauzak erakustea ongi dago baina bereaien tartea utzi behar zaie ere, esandakoa besterik egiten ez badute imajinazioa garatzeari uzten diote eta noraezean inertzia jokatzeari ekiten diote, erabakiak hartzen ikasi behar dute datorkienari bereaien iritiz erantzuten, bereaien ingurua kuestionatuz eta ez amen eginez. Hausnarketa bat besterik ez da baina azaldu egin nahi nuzien.

Herritarra.

K **Kirol jarduera****Bihar, larunbata****Gimnastika erritmikoa**

■ Usabal kiroldegian, Euskal liga, 10:00etatik aurrera

Tolosa Kup 09

■ Uzturpe pilotalekuan, 14:30etik 20:30era sei partida: 14:30ean, Uzturre-Ekaitz; 15:20ean Makkabi de levantar-De patxis; 16:10ean, Amo a sali campion-Bonbororea; 17:00etan, Tha asta pistols-Harry pote; 17:50ean, Sinsalus-Celtic Power; 18:40ean, Hoberena-Ecuador. Epaila bezala Sinsalus (lehen hiru partidetan) eta De Patxis (azken hiru partidetan).

Etzi, igandea**Xakea**

■ Aiz Orratz elkartearen xake azkarrak, 10:00etan. 75. urteurrenaren ospakizunaren barruan.

Mendia

■ Santa Klaratik Uzturrera igoera herrikoa, 09:30ean. Uzturre gainean hamaiketako eta musika (txistu bandak, tronpetak bandak, eta Uzturre piezaren abesbatza).

Tolosa Kup 09

■ Uzturpe pilotalekuan, 15:30etik 20:30era sei partida: 15:30ean, Hamaikaweb-San Juanetan; 16:20ean, Forty's-URT; 17:10ean, Elorri-Txanberokak; 18:00etan, Tiki taka-Plaza Cristales; 18:50ean, Gaztelubide-Orbela; 19:40ean, No somos nadie-Bikutz. Epaila bezala Tiki taka (lehen hiru partidetan) eta Forty's (azken hiru partidetan).

@ Elkarriketa digitala. Gure webgunera sartu eta *Elkarriketa digitala* atalean sartuz gero, orain arte HITZAren erredakzioetik igaro diren elkarriketatuaren elkarriketa digitalak irakur ditzakezue: Iñaki Irazabalbeitia, Nerea Sancho, Leire Olaberria, Kike Amonarriz, Garbiñe Biurrun, Edurne Pasaban eta Asier Izagirre, Antton Izagirre eta Hektor Espin, Inaxio Perurera, Jokin Bildarratz eta Gari Uranga. Sartu gure webgunera eta parte hartu!

www.tolosaldekohitza.info

H **Hilberria****XABI URIOL MARIJUAN**

Xabi, ez zaitugu gure artean baina beti egongo zara gure bihotzean



DONOSTIA
2009ko ekainaren 5a

XABIER URIOL

Atzo hil zen 9 urte zituela

Xabi, kilmatxoak egiten jarraituko degu, zure irribarreak merezi du.

Zure gelako lagunak

DONOSTIA
2009ko ekainaren 5a

XABIER URIOL

Atzo hil zen 9 urte zituela

Zure irria beti gurekin.

Jakintzako Guraso elkarteak

DONOSTIA
2009ko ekainaren 5a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

E Elkarrizketa

DULCE PONTES ▶ Abeslaria

«Une bereziak, desberdinak eta espero ez ditugunak sortuko ditugu»

Musika ▶ Dulce Pontes portugaldarrak 'Momentos' izeneko bere azken proiektua aurkeztuko du bihar, Leidor aretoan, 20:30etik aurrera.

INIGO TERRADILLOS

Mundua Tolosan zikloaren baitan, Dulce Pontes abeslari portugaldarra igoko da bihar Leidor aretoko taula gainera. *Momentos* izeneko bere azken lana aurkeztuko du 20:30etik aurrera. Bere bizitzako abesti garrantzitsuenak bildu nahi izan ditu azken lan honetan, eta horretaz gain, «beste hainbat ezusteko ere bai».

Nola osatuko duzu biharko kontzertua?

Momentos proiektuaren baitako kontzertua da, horregatik, kontzertuaren baitan une bereziak, desberdinak eta espero ez direnak sortu nahi dira. Etengabeko prozesua izango da, aldaketaz betea. Betiko abestiak izango dira, horiek abesteko gogoia dugulako, baina, erabat desberdinak diren abestiak eta oraindik grabatu ez ditugunak ere jorratuko ditugu. Betigaude aldatzen, etengabe ari garelako jende berriarekin lanean. Tinbreei dagokionez, akordeoia, oboea, portugaldar gitarrak, gitarra akustikoa, baxua, perkusioa eta bateria bezalakoak topatuko ditugu, beraz, kontzertu akustikoak izango dira, baina ukitu minimalistak ere izango ditu, eta ukitu sofistikatuena edo fadoak emango diola esan daiteke. Folkloreak ere pisu handia izango du.



HITZA

Musikan daramatzazun 20 urte hauen balantzea egingo al zenuke?

Gizakien arteko harremanetatik ikasi dudana azpimarratuko nuke, bereziki, urte hauetatik guztiak.

Aurrera begira, proiektu honekin amaitzen duzunerako ba al duzu zerbañ buruan?

Grezian izan berri naiz, proiektu

berri bati ekin nahi baitiugu irailetik aurrera. Paco Peña bezalako artistekin izan naiz han, eta fadoa, flamenkoa eta rebetika nahastuko dituen ekimena dugu buruan. Ilusio handia dut proiektu horrengan. **Artista handi askorekin elkarlanean aritu zara. Zer ikasi duzu berriarengatik?**

Estrella Morenterekin bira egin nuen, eta nire arreba bezala dela

esango nuke, artistikoki eta pertsonalki miresmen handia diot. LA egin dudana artista bakoitzak nabarmentzeko puntu bat du, bakoitzak bere handitasuna du. Niretzat artista hauekin lan egitea oso azkar ibil daitezkeen zaldiek ibiltzea bezala izan da. Horrela sentitzen naiz euren ondoan, askatasunean dagoen zaldi bat bezala, eta horrek asko eboluzionatzen laguntzen dit, maisu handiekin egon bainaiz. **Norekin gustatuko litzaizuke lan egitea?**

Peter Gabrielekin elkarlanean aritzea asko gustatuko litzaizuke. Interpretatzeko duen kalitatearengatik, idazteko eta konposatzeko erarengatik, eta bere koherentzia eta arimarengatik, besteak beste.

Kepa Junkerarekin euskaraz ere abestu duzu abesti bat. Zer moduko esperientzia izan zen?

Askok gustatu zitzaizkidan, baina oso zaila izan zen euskaraz abestea. Musika oso polita zen, eta Kepa Junkera asko gustatzen zait, baina euskaraz ahoskatzea kostatu egin zitzaizkidan.

Tolosako biharko kontzertuan, beraz, ez zaitugu euskaraz abesten ikusiko.

Ezinezkoa iruditzen zait. Askok sentitzen dut; abestiaren musika ondo ezagutzen dut baina ez letra, beraz, ezingo nuke ondo egin.

Taldearen lana garrantzitsua izango da zuen kasuan?

Bai. Taldea osatzen dugun kide bakoitzak berebiziko garrantzia du, bakoitzak bere alorrean. Beharrezkoa da elkar ondo ulertzea, eta noski ondo ematea eta elkarrekin gozatzea. Izan ere, guk lan egitean gozatzen badugu soilik orduan gozatuaziko ditugu besteak.

L Laburrak

Matxin Labaien lanak Lanbroan ikusgai

ERAKUSKETA ▶ Lanbroa taberna Matxin Labaien lanak daude ikusgai. 18 oloez osatutako erakusketak hilaren amaierara arte iraungo du.

Eskubaloi jardunaldia, igandean, Usabalen

ESKUBALOI ▶ Igandean, hilaren 7an, infantilei zuzenduriko eskubaloi jardunaldia izango da, Usabal kiroldegian, 10:30etik 12:00etara. 1996 eta 1997 urteetan jaiotako mutilentzat. Datorren denboraldia Tolosa CF eskubaloi taldearekin jokatu nahi duten guztiak parte hartu ahaliko dute, eta Tolosaldeko ikastetxe guztiak dago zabalik deialdia.

Ruiz de Eguinoren erakusketak Aranburun

POLITIKA ▶ Ekainaren 27ra arte ikusgai dago Aranburu jauregian Iñaki Ruiz de Eguino artista donostiarraren pintura eta eskultura erakusketak. Nazioarteko artista geometriko entzutetsuenetakoa da Eguino.

T Telefonoak

Larrialdia. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain.
Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leizta. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldeko bus: 943 650621
Leitzaran autob.: 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leizta): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Txinpartaren erakusketa eta lehiaketa abian da

ERREDAKZIOA

Txinparta elkarteak, aurten ere, Tolosako Artisten Pintura Erakusketa eta Felix Yarzaren Oroimenez Pintura Lehiaketa antolatu du. Erakusketaren 54. edizioa izango da aurten, eta lehiaketarena, berriz, bosgarrena.

Erakusketa elkartearen lokalean jarriko dute hilaren 20, 21, 22, 23 eta 24an. 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara bisitatu ahaliko da. Inaugurazio ekitaldia hilaren 20an, larunbata, izango da, 18:30ean Txinparta elkartearen lokalean bertan.

Eskualdeko guztiei irekia

Felix Yarzaren Oroimenezko V. Pintura Lehiaketari dagokionez, eskualdean jaio edo bertan bizi diren artista guztiak parte hartu ahaliko dute; obrek originalak izan behar dute, teknika librez eginak, eta gai norberak aukeratutakoa.

Izena hilaren 10a baino lehen eman behar da, eta lanak hilaren 15, 16 edota 17a entregatu beharko dira, elkartearen. Epaimahaiaren erabakia hilaren 20an, 18:30ean emango dute jakitera. Irabazleak 240 euro jasoko ditu, bigarrenak, 180 eta hirugarrenak, 120 euro.



Laskorain ederki Benjamin festan

ARETOFUTBOLA ▶ Urnietan urtero antolatzen duten Benjamin kirol festan parte hartu zuen pasa den larunbatean Laskorainek. Bi taldeekin parte hartzeko aukera izan zuten tolosarrek. Egun osoko festan, areto futbol eta eskubaloi partida ugari jokatu zituzten ikasleek. Ondo pasatzeaz gain, lehenengo saria ere eskuratuta etxeratu ziren Laskoraingoak. HITZA

Itxura hartzen ari da jada txotxongiloen etxea

Hirigintza » To.Pic izango denaren xehetasunak agertzen izan da Tolosan Dani Freixas arkitektoa; azaroan irekiko dute.

ERREDAKZIOA

Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa hemendik bost hilabete ingurura zabalduko dute, eta dagoeneko itxura hartzen ari da eraikina. Azaroaren 28an hasiko da Titirijai 09, Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia eta ordurako dena prest egongo dela aurreikusten dute.

Zentroaren proiektu museografikoaz arduratu den Dani Freixas arkitektoa bertan izan zen herenegun, txotxongiloen etxea izango denaren gakoak eta edukia aurkezteko. Eraikinaren helburuetako bat txotxongiloaren ondarea lehengoratzeta eta zaintzea da.

Txotxongiloen erakuslehoi tradizionalatik at, hau da, museoan ohiko eredu aldea batera utzita, txotxongiloen etxea izatea nahi dute Euskal Herria Plazako eraikin eraberritua. Bidaiatzeko eta imajinazioa erabiltzeko parada ematen duen tokia izango da hau, eta ez museo serio eta hotz bat. Izan ere, To.Pic zentroaren proiektu museografikoaren xede nagusia haurrak eta helduak txotxongiloen artearen mundura hurbiltzea da, tradizio handietatik hasi eta egungo sortzaileetara.

Zentroak txotxongiloen bilduma garrantzitsua du. Bertan, mun-

du osoko hainbat herrialdeetatik ekarri diren eta teknika ezberdinetan oinarrituta mugiarazten diren txotxongiloak daude. Asiakoak dira gehienak, baina bilduman badira ere, Amerikako, Afrikako eta Europako txotxongiloak. Guztira 1.400 txotxongilo daude.

To.pic-ekin txotxongiloen mundua originaltasunetik eta berezitasunetik aztertu nahi dute Tolosako Ekinbide Etxekoek. Hori dela eta, txotxongiloaren munduko sekretuak eta altxorrak gorde, babestu, ikertu eta erakusteko leku bat proposatzeaz gain, tradizionalki egin den moduan, bisita joko bat edo aurkikuntza bat baitizan ikustearen alde egiten du. Jakinmina eta konplizitatea funtsezkoak dira horretarako.

Dani Freixasek azaldu bezala, «haurrak txikitari museora joaten direnean, hauen serioetasuna eta hoztasuna dela eta, gerora ez dute joan nahi izaten, baina To.Pic-ekin ez da hau gertatuko, sartzen zarenetik, ilusioz eta imajinazioz betetako etxe batean aurkituko baitzara, hala, berriro itzultzeko gogoa izango duzu». Freixasek, diseinua egiteko garaian lortu nahi zuena zen, haurrek irudimena erabiltzen ikastea eta alegiazko munduak sortzea, etorkizunean, bizitza erreala hobeto bizi ahal izateko.

Arkitektoak azaltzen zuen ere, gaur egungo gazteek ez dutela aspertzeko denborarik, eta hau beharrezkoa dela, aspertu egin behar dela haur bat, ondoren istorioak asmatzeko, eta tokitik mugitu

gabe, beste mundu batzuetara bidaiatzeko. Hori da To.Pic-ek eskaini nahi duena, beste mundu eta herrialde batzuetara bidaiatzeko aukera, teknologia berrienak eta garai bateko txotxongiloak erabiliz, Tolosatik mugitu gabe.

Eraikinaren antolaketa

Txotxongiloen etxea zazpi gune handitan banatzen da. Ereku hauek hari bisualak lotzen ditu eta euskarri ezberdinen bitartez, bakoitzeko edukia berritza ahalbidetzen du eta magutasuna ematen du. Kutxak, antzoki txikiak, atak, atrezzoak, ispiluak, izarak, argiztapena eta proiektagailuak izango dira erabiliko diren euskarriak. Horrela, erakusketa iraunkorra maiz berrituko da.

Ondorengo gune hauek aurkitu



Etorkizunean hau izango da To.Pic-eko antzokia. E. EZEIZA

ahal izango ditu bisitariak, barne-egiten duen ibilaldian: ongietorria, kontrol gela, pertsonaien galeria, tailerra, sortzaileen korridorea, ganbera magikoa, istorioen

biltokia, ontziraturako denboraren aretoa, ikus-entzunezko produktioei buruz, kontrol gela, pertsonaien galeria eta istorioen artxiboa.



Euskarri ezberdinak eta teknologia berrienak erabiliko dira txotxongiloen etxe berrian. HITZA

Foru Aldundiak Tokiko Agenda 21 lagunduko du

Ingurumena » Hiru teknikari kontratatatzeko diru laguntza bat eman du, herri ezberdinetako planak aurrera eramateko.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Garapen Iraunkorrek Zerbitzuak SLri 155.000 euroko diru laguntza ematea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Diru laguntzaren xedea da iraunkortasuneko teknikariak kontratatzea, Tolosaldeko herrietako tokiko ekintza planen segimendua, dinamizazioa eta berrikuspenera egin ditzaten. Laguntza arautuko duen lankidetzeta hitzarmena ere onartu du, eta aurki sinatuko dute Carlos Ormazabal diputatuak eta Jokin Bildarratz Tolosaldea Garatzeko lehendakariak.

Hitzarmenak hiru urte iraungo du, eta berari esker iraunkortasuneko hiru teknikari kontratatuko dira, tokiko ekintza planen segimendua, dinamizazioa eta berrikuspenera egingo dituztenak.

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alkiza, Altzo, Anoeta, Amezketza, Asteasu, Hermialde, Ibarra, Balia-rrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil-Tokiko Agenda 21eko prozesuetan murgilduta daudela urte batzuk badira. Zeinek bere ekintza plana onartuta dauka, eta harrezkero haren jarraipenean lan egiten dute, lankide hauek dituztela: Tolosaldea Garatzen, Tolomendi, Tolosaldeko Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Eusko Jaurlaritzak, IHOBE zientzietaren bitartez.

Enrique Fleischman sukaldaria izango da bihar Zerkausian

Kultura » Goizeko lehen orduan lehengaiak erosiko ditu, ondoren, sukaldatu egingo du eta dastatzeko eman.

ERREDAKZIOA

Bihar Zerkausian, Enrique Fleischmann sukaldaria izango da. Aurreko hilabeteetan, gainontzeko sukaldariak egin duten bezala, bertan dagoen merkatutik erosiko ditu produktuak, ondoren, sukaldatu, eta azkenik, jendeari dastatzeko eman.

Fleischman mexikarra da, eta Donostiako Akelarre jatetxeko sukaldaria. Gainera, bertako i+d arduraduna da, eta *Cocina para dos* telebista saioko aurkezlea ere bada.

Euskarazko lehen sukaldaritza bilduma!

1. alea

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan: 12€

Liburua eskuratu nahi baduzu deitu **943-30 43 45** zenbakira **ekainaren 14a** baino lehen. Astebeteren buruan postaz jasoko duzu.

Laguntza FAGOR

aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Bihar goizean hasiko duten II. Frontenis Txapelketan 64 lagun ariko dira

Baliarrain » Aurtengoa 16 emakume hartuko dute parte binaka jokatu eta hauen arteko lehen partidak etzi izango dira.

ERREDAKZIOA

Aurten 64 lagunek hartuko dute parte Baliarraingo Frontenis Txapelketan. Emakumeen binakako berria da aurten eta 8 bikote animatu dira. Bihar abiaraziko dute

09:00etan hasita txapelketa, baina emakumeen arteko lehen partidak igandean izango dira 10:00etan hasita. Azkena 12:15ean hasiko litzateke.

Nesken kasuan, kanporaketa bidez jokatu dute txapelketa. Mutilen kasuan, 4 talde egin dituzte. Kanporaketa sistema aplikatu dute ere, baina talde bakoitzeko hiru hoberenak aterako dira eta hauen artean ligaxka jokatu dute. Talde bakoitzeko irabazleak izango dira finalerdian ariko dire-

nak. Hortik aurrera, final aurrekoen irabazleek, noski, finala jokatu dute.

Jokalariak epaile lanetan

Arauei buruz, hauek dira batzuko partida bat irabazten duen jokalaria izango da hurrengo partidako epailea. Partaide bakoitzak nahi dituen ordezkio guztiak eduki ditzake, txapelketan parte hartzen ez dutenak beti ere.

Partidako orduetik 10 minutura azaltzen ez dena txapelketatik

kanpo geratuko da. Norgehiagokak 30 tantora izango dira eta guztinez 2 tantoren aldearekin irabazi behar da. Mutilen kasuan, ligaxkako partidak 22 tantora jokatu dituzte.

Tanto egiten duen partaidea bakarrak dauka atsedean hartzeko eskubidea. Beste partaidea den bora gehiegi galduko balu lehengoan epaileak abisatu egingo dio eta hurrengoan aurkariari tanto emango dio.

Ligaxkan hiru jokalarien arteko

berdinketa ematen bada, beraien arteko tanto-averagea hartuko da kontuan.

Finala hilaren 14an jokatu dute denek, bai emakumeek eta bai gizonek ere.

Bihar 09:00etan hasiko dira Partidak bihar hasiko dira, 09:00etan eta orduerdiro beste bat jokatu dute. Txapelketa zabalduko duten lehen jokalariek Emilio Hernandez eta Juantxo Izal dira. Biharko azkeneko 20:30ean izango da: guztira 24 partida ikuskego aukera izango litzateke.

Igandean, berriz, biharko irabazleen artean jokatu dituzte partidak; 13:00etan izango da lehen eta 18:30ean azkena.

Ludotekaren inaugurazioa

Bedaio » Bedaiotarrak «pozik» daude ludotekako ekitaldiarekin, luxuzko gonbidatu eta ikusleen harrera eta jarrerarekin.

ERREDAKZIOA

Kultur Asteburua aprobetxatu dute bedaiotarrak haur eta gazteen liburategia inauguratzeko. Liburategi, aisialdi eta ekintza anitzeko gela bat antolatu dute Artubi elkartearen gainean daukaten lokala.

«Duela hiru urte hasi ginen gaur egun dugun lokala antolatu eta egokitzen». Hasierabatean «ez genuen pentsatzen bedaiotarrak, Tolosako haur liburategiak utzitako liburu kaxa batetik hasita, gaur egun lokal honek betetzen duen funtzioa betetzera iritsiko zirenik».

Esan bezala, «liburu kaxa bat genuen eta liburu hauek nonbaiten kokatu nahirik bedaiotar batzuk elkartu Artubi gainean dagoen gela bat txukundu, margotu eta zertxobait egokitu genuen». Gela honek, ordea, bazituen zenbait gabezi, adibidez negurako berogailua edo argiteri aldetik. Honen aurrean, Tolosako Udalarri proposatu zitzaion zenbait konponketa eta

egokitze lanak egiteko. «Udalak ikusirik egindako lana eta Bedaion egiten diren hainbat ekintzetako horrelako lokal baten beharra, Erein programako diru laguntzekin batera gela zertxobait handitu eta egokitu zuen».

Gaur egun besteak beste, bi ordenagailu, telebista eta Internetarako konexioa daukate.

Luxuzko gonbidatuak

Beraz, gelditzen zitzaieen bakarria inaugurazioa zen, eta horixe egin zuten Kultur Asteburuaren barruan. Horretarako kirol eta kultura munduan, haur eta gazteen erreferentzi diren pertsonai ezagunak gonbidatu zituzten. Hain zuzen ere, Abel Barriola, Aimar Irigoien, Jose Manuel Goikoetxea Goiko eta Iñake Irastorza.

Pertsonaia hauek haur, gazte eta ez hain gazte diren galderei erantzuten saiatu ziren eta ondo saiatu ere, «bi orduz, bertan ginen ikus entzuleen gozagarri izan baitziren». Lokala irratiko estudio batean bihurtu zuten, Txolarre irratia lagun zizuten.

18:00ak inguruan hasi zuten irratsaioa eta bitartean Interneten bidez ere emititua izan zen, *Balarditik mundura* blogean.

Gonbidaturiko lau lagunak bi ordu luzez egon ziren haurrek eta

ondoren helduek eginiko galderei erantzunez.

Abel Barriolak 11 urte daramatza profesional mailan eta bere ezagupenak ederki agertu zituen han bildutako haurrei, erantzun didaktikoak bihurtzen ziren hari egindako galdera guztiak, broma eta barre tartetan haurrek gustura joan ziren etxera izandako entrenamendu teorikoarekin.

Irigoien ezaguna da Bedaion, lau urte zituela egin baitzuen bere lehensaioa, Bedaion bertan. Orduetik Bedaion hamaika saio egin baitu ere «oso gustura etortzen da Be-

daioa eta bedaiotarrak ere harro sentitzen gara bere garaipenak gure ere egiten ditugulako».

«Goiko eta Iñake kultura maila ordezkaturik eta gehienbat zinea eta antzerki munduaren ordezkari gisa izan ziren: bata bikoizle bezala eta bestea aktorea. «Pelikula askotan entzundako ahotsari aurpegia jarri genion». Saioaren ondoren han bildutako guztiak sinadurak luzatu zituzten, denbora luzean gogoan izango den arratsalde polit bat borobilduz.

Bedaioarren aldetik, «eskerrik beroenak denei».



Jende ugari joan zen ekitaldira. HITZA



Bertaratu zirenek famatuen sinadurak jaso zituzten. Txolarre irratik zuzenean emititu zuen Bedaiotik hitzaldia. Irudian, Barriola galdera bat erantzuten. HITZA

Laburrak

Udaberri Txapelketako norgehiagokak, bihar

PILOTA » Bihar Bidegoianen eta Villabonan Udaberri Txapelketako partidak jokatu dituzte: Bidegoianen 15:30ean binaka infantilen mailan bi norgehiagoka izango dira eta. Ondoren, 16:30etik aurrera kadeteak banaka ariko dira. Villabonan 16:00etan hasita lau norgehiagoka jokatu dituzte seniorren mailan eta banaka. Bi herrietan Aurrera-Saiazkoak eta Behar-Zanaokak ariko dira.

Aste Berdearekin, gaur zinekluba eta bihar irteera

AMEZKETA » Gaur Amezketan Aste Berdea ospatzen jarraituko dute eta horretarako, 20:00etan zinekluba izango da. *Cenizas del Cielo* pelikula eskainiko dute balioanitzeko gelan. Bihar, berriz, 10:00etan Zumadi herri eskola Berzeagako erreka (Altun goena) San Martin ermita mendi irteera antolatu dute. Ibilaldiak ordu-bete inguru iraungo du eta irekia izango da. Bakoitzak bere hamaitakoa eramatea gomendatzen du Udalak. Etzi udaletxe azpiko pasabidean Eguzki-labeen erakusketak eta tailerra antolatu da ISF (Mugarik gabeko Ingeniaritza) taldearen eskutik, 11:00etatik 14:00etara.

Ezohiko bilkura egingo dute gaur 18:00etan

AMEZKETA » Gaur arratsaldean 18:00etan, alkateak deituko ez ohiko bilkura izango da Amezketan. Udaletxe bilkura areto nagusian egingo dute eta kasu honetan, besteak beste, ondoren zehazten den gaia aztertuko dute: Amezketa Hirigintza Plan Orokorreko AIU 9 Ola Auzoko 9.1 eta 9.2 sektoreei dagokien Aldaketa Puntualaren Formulazioa eta Aurrerakin dokumentua onartzea. Azkeneko ohiko bilkuran erabakitzeak zen baina ez ziren adostasunetara iritsi.



Bertaratu zirenek famatuen sinadurak jaso zituzten. Txolarre irratik zuzenean emititu zuen Bedaiotik hitzaldia. Irudian, Barriola galdera bat erantzuten. HITZA

Herriko memoria historikoa gogoan, jai luzeak hasteko

Anoeta » Gaurtik hilaren 24ra arte herriko jaiak izango dituzte; dantza, musika, kirola eta lehiaketa ugari izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Urteroko moduan aurten ere egitarau luzea osatu dute Anoetako Jai Batzordeko kideek. Herriko jaiak gaur bertan hasiko dituzte, 22:00etan izango den *Memoria*

Dantzan ikus-entzunezkoarekin eta hilaren 24ra bitarte iraungo dute. Ohikoa den bezala Koadrilen Eguna (hilak 6) izango dute, baita Dantzari Txiki Eguna (hilak 7) eta Umeen zein Mozorro Eguna (hilak 11) ere. Azken egun honetarako, gainera, antolatzaileek gaztetxoek bazkarira eta baita buruhandi eta erraldoien kalejirara mozorrotuta joateko eskatu dute.

Era berean, aurtengoan iaz hildako herriko Javier Sarasa txistulariari omenaldia ere egingo diote;

hilaren 14ean izango da 13:00etan herriko elizan.

Herritarrek egindako artelanen erakusketa

Honekin batera, igande honetan eta hilaren 13 eta 14ean 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era, erakusketak ere izango dira udal-etxean.

Herriko artisten, eskulanetako taldeek egindako eta festetutako kartel lehiaketa aurkeztutako lanak ikusi ahal izango dira.



Ilazko jaietako haur danborradaren irudia. I. GARCIA

» EGITARAUA

Gaur, hilak 5

■ **22:00.** *Memoria dantzan* ikus-entzunezkoa kiroldegian; Anoeta eta anoetarren memoria historikoren inguruko laburmetraia; narrazio digitala, bertso antzerkiaren eta dantza garaikidearen bidez osatutako lana.

Bihar, hilak 6 Koadrilen Eguna

■ **09:00.** XII. Eskuzko Pilota Herri Txapelketa. Finalak izango dira. Udal Pilota Eskolak antolatuta.
■ **11:00.** Koadrilen Arteko I. Batel Txapelketa. Errota Poligonoan.
■ **12:30.** Koadrilen Eguneko txupinazioa eta kalejira.
■ **14:30.** Koadrilen Bazkaria frontoian.
■ **17:00.** Koadrilen arteko jokoak plazan.
■ **19:00.** Zo-Zongo batukada talderen kalejira herrian zehar.
■ **21:00.** Koadrilen Afaria frontoian.
■ **23:00.** Laket musika taldearen emanaldia plazan.

Igandea, hilak 7 Dantzari Txiki Eguna

■ **10:00.** Goiz osoan zehar Baserritarren Azoka izango da plazan; Anoetako AHT Gelditu! Elkarla-

nak antolatuta. Talogileak eta dultzaineroak egongo dira.

■ **10:30.** Ikaztegieta, Irura, Tolosa eta Anoetako dantza taldeen kalejira.
■ **12:00.** Dantza taldeen emanaldia plaza txikian.
■ **16:00.** Judo eta gimnastika erritmikoko ikasleen emanaldia Kiroldegian.
■ **18:00.** Loatzo Musika Eskolako kontzertua plazan.

Hilak 10, asteazkena

■ **18:55.** Herriko txalapartariak kukuaren etorrera iragarriko dute plazan.
■ **19:00.** Herriko plazan jaien hasiera: txupinazioa, kukuaren jaietsiera kanpai hotsen eta ume zein gaztetxoek danborrada, Lagunak txarangarekin. Ondoren, Loatzo Musika Eskolako trikitilarien kalejira.
■ **19:30.** Sardina jatea plazan, Kuku Elkarteak antolatuta.
■ **23:00.** Erromeria Elustondo anai-arrebekin plazan.

Hilak 11, osteguna; Korputz, Umeen eta Mozorro Eguna

■ **10:30-13:30.** Ume eta gaztetxoentzako parkea plazan.
■ **13:30.** Ume eta gaztetxoentzako

bazkaria frontoian. Zatoz mozorroturik!

■ **17:00.** Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia plazan.
■ **18:00.** Txokolate jatea plazan, Ateaga Elkarteak antolatuta.
■ **18:30.** Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko trikitilarietara. Zatoz mozorroturik!
■ **21:00.** Kostila jatea frontoian, Anoetako ezker abertzaleak antolatuta. Tiketak salgai Haizean, Buztinan, Arkupen, Itzulin eta Laian.
■ **23:00.** Erromeria Izer eta Alabierrekin plazan.

Hilak 12, ostirala

■ **11:00.** Herriko jubilatuen arteko Toka Txapelketa plazan, Alkartasuna Elkarteak antolatuta.
■ **16:30.** Buruhandi eta erraldoien kalejira.
■ **18:00.** Ume eta helduen *playback* plazan.
■ **22:00.** Pala partida mistoak (Zubeldia-Arozena/Urkizu-Landa) eta afizionatuen pilota partidak (Renobales-Leunda/Mendizabal-Irureta) frontoian, Kuku eta Su-Berri Pilota Elkarteak antolatuta.
■ **24:00.** Lauroba eta Vendettaren kontzertua plazan.

Hilak 13, larunbata Gazteen Eguna

■ **11:00.** Herri Lasterketa ume, gazte eta helduentzat. Plazatik abiatuko da.
■ **12:30.** Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistularietara.
■ **15:30.** Mus Txapelketa, Ateaga Elkarteak antolatuta.
■ **16:30.** Txirrindulari Lasterketa, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta (alebin eta infantil mailakotarako).
■ **18:00.** Gazteen kalejira dantza eginez.
■ **19:00.** Sagardo Dastaketa, txorizo egosia eta gazta pintxoekin, Kuku Elkarteak antolatuta.
■ **21:00.** Herri afaria frontoian.
■ **23:30.** Gazteen dantza plazan. Ondoren Kupela erromeria taldea izango da plazan.

Hilak 14, igandea

■ **10:30.** Umore Ona Ordiziako jubilatuen abesbatzaren emanaldia elizan.
■ **11:00.** Gorritiren jaialdia: zezendak eta ponyak plazan.
■ **11:30.** Paleta Txapelketa finalak frontoian, Kuku Pilota Eskolak antolatuta.
■ **12:00.** Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistularietara.

■ **13:00.** Omenaldia Javier Sarasari elizan.

■ **18:00.** Herri kirolak Arozetxea ondoko belazean. Bukatu ondoren erromeria joango dira plazara.
■ **19:30-21:00 / 23:00etatik aurrera.** Agirre Anaiak taldearen emanaldia plazan.

Hilak 23, asteartea San Joan bezpera

■ **18:00.** Buruhandi eta erraldoien kalejira herriko txistularietara.
■ **20:30.** Herri Afaria plazan.
■ **22:45.** Txalapartariak San Joan bezperako suaren jai iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan San Joan Zortziko Kantuak eta erromeria izango dira Markox Landa, Aita-Semeak eta Ahosoi-nuarekin.

Hilak 24, asteazkena San Joan Eguna

■ **11:00.** Herriko txistularien kalejira.
■ **12:00.** Meza jubilatuei eskainia. Aurretik, Udal Dantzari eta Txistulariak ariko dira herriko jubilatuen omenez.
■ **13:30.** Herriko jubilatuta eta pentsiadunen bazkaria izango da. Ondoren, dantzaldia ere izango dute Ikastolan.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Bi logeletako apartamentua alokatzen dut Jaikan (Huesca) abuzturako. Nahi izanez gero hamabostaldirako ere alokatu ahal da. Guztiz osatuta dago. Garajea du eta pistinara begira dago. Umeekin joateko aproposa da. Interesa izanez gero deitu 649 208 984 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dute. Informazio gehiago nahi izanez gero: 616 542 960 telefonora deitu. Kotxearekin edo kotxerik gabe.

Uzturpeguna ospatuko dute bihar

Ibarra » Egun osoko jaia izango da eta berrikuntzak daude aurtengoan: taberna eta heldu zein gazteentzako jolas berriak.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Uzturpe Ikastolak Uzturpeguna ospatuko du bihar. Ikastolako arduradunek argitu dituzte, eguna goizeko jaialdiarekin hasiko dute, bertan Haur Eskola, Haur Hezkuntza, Lehen Hez-

kuntza, D.B.H.ko Lehen zikloko eta Antzerki Tailerreko ikasleek parte hartuko dutelarik. «Dantza, antzerkia, bertsoak eta zenbait xelebrekeria eskainiko dituzte», zehaztu dute. Arratsaldean, aldiz, jolasekin bukatu bitarte, «hamaika aukera izango dira elkarren artean gozatzeko». «Izan ere, berrikuntza asko daude aurtengoan, taberna edota heldu eta gazteentzako jolas berriak kasu», gehitu dute.

Gurasoentzako oharra ere badu ikastolak: «Ekar itzazke, arren, iazko edalontzi horiak».

San Bartolome jaien egitarauerako lehiaketa

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udaleko Festa Batzordeak argitu duenez, abuztuko San Bartolome jaien eskuprogramen azalaren diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan 18 urte gorako ibartarrek hartu ahal izango dute parte. Lanak A4 formatuan aurkeztu behar dira, edozein modalitateetan (argazkiak, marrazkiak, pintura...), gaia libre da, irabazleak 300 euro jasoko ditu eta Udalak izango du lan irabazlearen jabetza. Era berean, diseinuen Ibarrako armarraria ja-

rrita edo jartzeko lekua izan behar du eta hilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira lanak Kultur Etxean.

Honekin batera, gainera, haurren bozeto lehiaketa ere antolatu dute. Lanak ekainak 19 baino lehen entregatu behar dira Kultur Etxean eta lanak Ibarran bizi edota ikasten duten haurrek entregatu ahal dituzte. Marrazkien gaia libre da, folio neurrian aurkeztu behar dira eta *San Bartolome jaiak* 2009 leloa eta herriko armarraria jarrita edo jartzeko tokia izan behar dute.



Sastreren aldeko bozka eskatu dute

VILLABONA ● Iniziatiba Internazionalistaren aldeko bozka eskatuz, euskal kulturagintzako hainbat pertsonaiek Ekitaldi Kulturala antolatuta zuten atzo Gurea antzokian. Ekitaldia bertsoariekin hasi zen. Ondoren Aiora Zulaika eta Joxe Mari Agirretxe, Pirritx eta Porrotx, igo ziren eszenatokira, sudur gorririk gabe baina «koloretzu». Iniziatiba Internazionalista «abertzalea

eta euskalduna ez dela esan dutenei», kolore desberdinetako umorez erantzun zieten Zulaikak eta Agirretxek: «Hegoaldean euskalduna eta abertzalea den zerrrendaburua badugu, Karmelo Landa, baina espetxean daukate. Horregatik, Europako Hauteskundeetan nor bozkatu behar dudan galdetzen didatenean, jantziak egiten dituen bozkatuko dudala esaten diet». A.I.

Guraso Elkarteak begirale bila

Areso » Udako Ludoteka zerbitzua jarri nahi du martxan herriko Guraso Elkarteak. Horretarako bi begirale behar dituzte.

A. IMAZ

Aresoko Guraso Elkarteak 2009ko Udako Ludoteka zerbitzua antolatuta nahi du. Horretarako bi begirale aurkitzeko lanetan dabilta.

Udako Ludoteka ekainaren 29tik abuztuaren 7ra izango da.

Egunero bi orduz, 11:00etatik 13:00etara.

Bi begirale euskaldun

Guraso Elkarteak jakinarazi duenez, aukeraketa egin ahal izateko beharrezkoa dira aurkezpen gutuna eta proiektu bat entregatzea. Horretaz gain, «ezinbestekoa da euskara ongi menderatzea».

Kontutan hartuko diren beste hainbat datu honako hauek izango dira: «Heziketarekin zerikusia duen ikasketak, begirale ikastorak, antzeko lanetan esperientzia izatea...».

Behineskariguztiak jaso ostean, elkarteko kideak hautatuak izan diren bi begiraleekin harremanetan jarriko dira, ekainaren 25a baino lehen.

Proiektuak noiz eta nora

Aresoko begirale postua lortu nahi dutenek ondorengo helbide elektronikora bidali beharko dute proiektua: aresokogurasoelkarta@hotmail.com. Informazio gehiagorako edota eskura entregatzeko 652729831 telefono zenbakira deitu beharko dute. Epea ekainaren 19an amaituko da.

Herri Artekoa Arbizuren aurka

Leitza » Multzoko azken partidaz gain, Aurrerako pilotariak beste hainbat txapelketa jokatu dituzte asteburuan.

ASIER IMAZ

Aurrera Pilota Eskolako haur eta gazteek asteburu oparoa dute aurrean: Herri Arteko Txapelketa; Nafar Jokoak; Hitz Txapelketa; Lizarrako Txapelketa...

Nafarroako Herri Artekoa

Leitzak multzoko azken partidak bihar jokatu ditu Arbizun bertako taldearen aurka. Alebinek irekiko dute bi herrien arteko lehia 11:00etan. Ondoren alebinen, jubilenen eta seniorren partidak jo-

katuok dira. Leitzaurrek garaipena behar dute zuzenean finalerdietara sailkatzeko. Multzoko azken partida Uharte eta Arbizuk jokatu dute. Orduan jakingo da zehaztasunez Leitzaurren etorkizuna Nafarroako Herri Arteko Txapelketa.

Nafar Jokoak Amazabalen

Arbizura joan ezin duenak, Amazabalen aurkituko ditu pilota partidak bihar. Bertan 10:00etatik aurrera Nafar Jokoetako lau partidak jokatu dituzte.

Leitzan honako bikote hauek irtenngo dira bihar herriko frontoira: Joseba Eskudero-Beñat Altzelai; Joanes Illarregi-Ander Alduntzin; Mikel Sagastibeltza Egües-Xabi Zubiria eta Xabi Eraso-Mikel Onsal.

Hitz Txapelketa leitzaurrek

Aurrerako bikoteak, Olano-Tolosa, infantilen mailan gaur jokatu dute euren partida Adunan, 19:30ean.

Elgeta eta Lizarra

Asteburu honetako azken partidak Elgeta eta Lizarran jokatu dituzte Aurrerako pilotariak, hilaren 7an, etzi.

Jon Jaunarenak Elgetako Txapelketa jokatu du eta Olano-Tolosak Lizarrakoan. Azken hauek finalerdietako partida eduki dute.

XVII. Plazako Txapelketa

Eskuz Binakako Txapelketa herrikoian, A multzoko partidak jokatu dituzte bihar 16:00etatik aurrera Leitzaurrek plazan.

Sari ugari jaso dituzte Erletako ikasleek

Leitza » VII. Marrazki eta Ipuin Lehiaketan bost urteko Saioa Maritorenak jaso du Nafarroako Lehen Saria.

A. IMAZ

Nafarroako Gobernuaren Kiroi Balioak Kanpainaren barnean, VII. Marrazki eta Ipuin Lehiaketa antolatuta dute *Egin kirola eta gozatu* lelopean.

Haur Hezkuntzako kategorian Nafarroako Lehen Saria Saioa Maritorenak Etxeberriak, 5 urteko neska, lortu du.

Erleta Eskolako bere saria izan

du, aurreneko aldiz, Nafarroa mailan lehen saridun bat bertako ikaslea izateagatik. Sari banaketa hil honen 10ean, asteazkenean, Iruñean izanen da.

Saridun gehiago

Leitzako Erleta Eskolan saridun ikaslerik ez denez falta, Nafarroako Bertso Paper lehiaketan lortutako emaitzak gogor arazi nahi izan dituzte: «Lehen Saria, 3. zikloan, 6. mailako Martxel Intxaurte Lasarterentzat. Lehen saria, 2. zikloan, 4. mailako Joanes Illarregi Marzolentzat. Deklamazio Saria: Pedro Diaz de Ultzurrunentzat. Lehen Saria, 4. mailan, Sugar taldearentzat».

640 kilokoan hirugarren postuan dago Areso

Sokatira » Lehen jardunaldian Goierri A nagusitu zen, tiraldi guztiak irabaziz, Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketan.

A. IMAZ

Aresoko sokatira taldea hirugarren gelditu zen 640 kiloko lehen jardunaldian, Mutriurekin berdinduta. Asteburu honetan nazioarteko probak jokatu direnez, Aresok atsedean hartuko du.

Goierri A jaun eta jabe

Goierri A taldeak lortu ditu 640 kiloko aurreneko sei puntuak, lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketan. Erandiokoe (Bizkaia) iragan asteburuko tiraldi guztiak irabazi zituzten, hots, hamar tiraldiak.

Laukizen (Bizkaia) ekin zioten 640 kiloko txapelketari, lehen jardunaldia soilik jokatu baitzuten. Pisu horiere hiru jardunaldira erabakiko da. Asteburu honetan atsedean hartuko du Txapelketak, bihar zortzi itzultzeko.


Laburrak

Ekitaldia gaur, Iniziatiba Internazionalistarena

LEITZA ● Aldaketa politikoa eta sozialaren alde ekitaldi politikoa egingo dute gaur 20:00etan herriko plazan. Bertan, Europako hauteskundeetarako Iniziatiba Internazionalistaren aldeko bozka eskatu dute.

Aralar Musika Eskolako ikasleen kontzertua gaur

LEITZA ● Aralar Udako Musika Eskolako ikasleek ekitaldi politikoa egingo dute gaur 20:00etan. Kontzertuko sarrerak euro batean izango dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



22°
15°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	21°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

- **Aduna.** Arratsaldean, Kultur Etxean, ingurumen edukiko pelikulen emanaldia.
- **Amezketza.** 20:00etan erabilera anitzeko gelan, *Cenizas del cielo* filma.
- **Belauntza.** 18:30ean Kultur Etxean, *El linxe perdido*.
- **Berrobi.** Zinekluba, 22:00etan *Cenizas del cielo*.
- **Tolosa.** 12:30ean, San Blas Garbigunearen inaugurazioa.
- **Villabona.** Bigarren eskuko azoka Villabonan, 17:00etatik 21:00etara. Salmenta postuak, berrerrabiltze tailerrak eta kale animazioa. Zerbait saldu nahi duenak, izena ematea eta informazioa: 943 367534 edo ekocenter@emaus.com.

Zinema

- **Tolosa.** *El vuelo del globo rojo* ja-torritzko bertsoan zine-forumean Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

Deialdiak

- **Anoeta.** *Memoria dantzan Anoeta* kiroldegian 22:00etan. Doan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz azoka, 9. 943 675118.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Lau berdegune gehiago



Igandera arte mantenduko dituzte ikusgai meta hauek Plaza Zaharrean; jendearen kuriositatea ere pizten dute. N. L.

ERREDAKZIOA

Udalak *Tolosa Berdez* egitasmoa jarri zuen martxan pasa den astean. Ordutik metak, sagastia eta bestelakoak ikus daitezke herriko hainbat gunetan. Udal ordezkariak aurkezpen zehaztu zuten, helburua «baserrietako eta landa eremuetako ohitura zaharrak herriarrei gerturatzea» izango da. Hala, Alde Zaharrean zehar lau berdegune atondu dituzte, Trianguloan, Plaza Zaharrean, Berdura Plazan eta Plaza Berrian.

Zuhaitzak karez margotu dituzte, metak jarri dituzte, ureztagailu apaingarriak erabili dituzte, sagasti bat inprobisatu dute, herriar gehienak jabetuko ziren honekin dagoeneko Etzi, igandearrekin, amaituko da egitasmoa.



Plaza Berrian. berriz, sagasti bat inprobisatu dute. N. LATABURU

A Agurrak



Zorionak!
Badator, badator... Prepatuta?



Zorionak!
Kattalin eta Iñaki. Zorionak zuen urtebetetze egunean. Egun on bat pasa dezazuela. Familia.

aldaketa

POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

bozkatu
www.iniciativainternacionalista.org

iniciativa
INTERNACIONALISTA

gaur

• GASTEIZ Kanpaina itxiera 19:00 Guridi zinemak

• BILBO Ekitaldia 19:30 Abandoibarran (Guggenheim ondoan) • LEITZA Ekitaldia 20:00 Plazan • ALTSASU Ekitaldia 19:00 Plazan • UHARTE Ekitaldia 19:30 Plazan • CORTES Ekitaldia 20:00 Kultur etxean • IRUÑEA Triki poteoa eta afaria 20:30 • AIBAR Hitzaldia 19:00 Eskoletan • AGOTZ Hitzaldia 20:00 Aurelio Leon kultur gelan • MUTRIKU Ekitaldia 20:00 Beheko plazan • DEBA Ekitaldia 20:30 Plazan. Ondoren afaria Arranon • SORALUZE Ekitaldia 20:00 Plaza berrian • EIBAR Ekitaldia 19:00 Untzaga plazan • ASTIGARRAGA Sardinada 20:30 • HONDARRIBIA Ekitaldia 20:00 Zabalaren txokoan • IRUN Ekitaldia 20:00 San Juan Plazan • OREETA Ekitaldia eta afaria 20:30 Herriko plazan • MAKURRIAIN Ekitaldia 21:00 Herriko plazan • LEIOA Ekitaldia 20:00 Plaza gorrian • SESTAO Jaialdia 18:00-tik aurrera • SANTURTZI Parrillada • ASTRABUDUA Hitzaldia 20:00 Josu Muruetan • DURANGO Afaria • IURRETA Afaria • LARRABETZU Parrillada • AULESTI Afaria • ZALDIBAR Afaria • OTXANDIO Afaria • BERRITXU Bertso afaria 19:00 • URDUÑA Hitzaldia 19:30 Aduana Hotlean • ERROMO Ekitaldia 20:00 Santa Eujenian • ABANTO Ekitaldia 19:30 Dolores Ibaruri parkean • ARAMAIO Ekitaldia eta luntxa 19:30 • ATARRABIA 19:00 Sancho VI Sabio plazan • ETXALAR Afari-hitzaldia 21:00 • ZUMAIA Manifa + ekitaldia 19:30 Kofradia aurrean • TOLOSA 19:30 Plaza Berrin • ANDOAIN Ekitaldia eta ondoren manifa 18:00-20:00etara • IBARRA 19:30 Plazan • EGIA 19:30 Plaza Berrin

etzi zenbaketa gaur 20:30

Iruñea

Bilbo

Gasteiz

TXANTREA
Peña Armonía
Txantreana

Esperantza

Frontoian

Txapeldun

Tabernan

Donostia
Trinitate
Enparantzan

